

2021eko URTARRILAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **2 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2021eko urtarrilaren 28an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

| | |
|-------------------------|--|
| Batzarburua | Xabier Txurruka Fernandez jn. |
| Zinegotziak | Miren Letamendia Belloso and. (telematikoki) Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozueta Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. (telematikoki) Leire Arana Olabarrieta and. (telematikoki) Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. (telematikoki) Begoña Olaizola Elordi and. (telematikoki) Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. (telematikoki) Eider Illarramendi Azkue and. (telematikoki) Gloria Vazquez Herranz and. (telematikoki) Oihane Delgado Pita and. |
| Ez da etorri | Patxi Elola Azpeitia jn. |
| Idazkaria | Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and. |
| Kontu-hartzailea | Itziar Kortabarria Garitano and. |

Covid-19ak eragindako alarma egoera dela-eta, aipatutako zinegotziek bideokonferentzia bidez hartu dute parte.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2020ko ABENDUAREN 22ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=1>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- 2021eko URTARRILAREN 21eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=2>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2020ko abenduaren 17tik 2021eko urtarrilaren 22ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=3>

Segidan, Alkatetzak 2020ko abenduaren 17tik 2021eko urtarrilaren 22ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2020ko abenduaren 21etik 2021eko urtarrilaren 18ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=4>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 21etik 2021eko urtarrilaren 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2020ko 4. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=5>

Udalbatzak jakin berri du 2020ko laugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2020ko 4. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=6>

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2020ko laugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

7.- 2021. ZARAUZKO UDALAREN ARAUGINTZA PLANA 2021. URTERAKO.

Espedientea: 2020III0024

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=7>

Akordio-zirriborroa irakurri ondoren, udal taldeek proposamena bozkatu egin dute, emaitza honekin:

| | | |
|---------------|----|--|
| Botoak alde: | 20 | 10 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 1 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak |
| Botoak aurka | - | |
| Abstentzioak: | - | |

“39/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 132 artikuluan ezartzen du Udalak urtez urte araugintza plan batean zehaztu beharko dituela hurrengo urtean onestekoak diren lege- edo erregelamendu-ekimenak.

Udal departamentuek egindako proposamenak oinarri hartuta, Zarauzko Udalak Araugintza Plana egin du 2021. urterako.

Hori guztia kontuan hartuta eta Antolakuntzako informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- 2021. urterako Zarauzko Udalaren ARAUGINTZA PLANA onartzea.

Bigarrena.- Onartutako ARAUGINTZA PLANA udal web-orrian argitaratzea.”

ZARAUZKO UDALAREN 2021. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honakoa dio 132 artikuluan:

“Arau-plangintza.

1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak.

2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.”

Udal departamentuek egindako proposamenekin bat etorriz, Zarauzko Udalaren Araugintza Plan hau egin da 2021. urterako, honako edukiarekin:

A) ANTOLAKUNTZA ARLOA

A.1. KONTU-HARTZAILTZA - DIRUZAINTZA

A.1.1. ORDENANTZA OROKORRA, TRIBUTUEN ETA TOKIKO ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUEN KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKAPENA ARAUTZEN DUENA (berria)

Justifikazioa:

Ordenantza honen xedea da:

- Tributuena eta tokiko zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa hobetu eta erraztu dezaketen prozedurazko alderdiak arautzea.
- Hainbat Ordenantza Fiskaletan komunak diren alderdiak arautzea, errepika ez daitezen.
- Udalak zehaztu edo garatu behar dituen gaiak arautzea.
- Herritarrak informatzea bai indarrean dauden arauak eta prozedurez, bai zergadunen eskubideez eta bermeez, informazio horren berri izatea interes orokorrekoa izan daitekeelako zerga-obligazioak behar bezala betetzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Kudeaketa arrazionalizatuz, prozedurak zehaztea eta garatzea, beti ere maila goreneko xedapenak errespetatuz, eta, bide batez, herritarrei indarrean dauden arau eta prozedurak ezagutaraztea.

Beste xedapen batzuk indargabetzea:

- 2010/06/30ko 0963 Dekretua: Zatikatzak eta geroratzeak.
- 2012/12/28ko 1768 Dekretua: Zorrak eta eskubideak konpentsatzea.
- 1993/01/28ko idatzia, interesak kobratzeari buruzkoa.

A.2. KONTU-HARTZAILTZA - ERRENTAK

A.2.1. ORDENANTZA FISKALAK (aldatzea)

Justifikazioa:

Udal tributu eta prezio publikoen urteko berrikuspenak eta eguneratzeak egitea, honako helburu hauekin:

- Ordenantzak egokitzea, maila goreneko xedapenen aldaketetara edo berrikuntzetara.
- Udal zerga, tasa eta prezio publikoak eguneratzea edo aldatzea, bai kopuruei dagokienez, bai hobari eta salbuespenei dagokienez.

- Diru-sarreraren maila eguneratzea edo aldatzea.
- Prozedura administratiboak eta zerga-kudeaketa arrazionalizatzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Udalaren nahikotasun finantzarioaren printzipioa indartu eta mantentzea, Udalak bultzatu edota ekidin nahi dituen egintzak eta helburuak kontuan hartuta.

A.3. DIRUZAINITZA

A.3.1. FONDOAK ERABILITZEKO PLANA (berria)

Justifikazioa:

- Udaleko ordainketa-aginduak diruzaintzaren FONDOAK ERABILITZEKO PLANAREN arabera eman behar dira. Plan hori udalburuak ezarri behar du, eta bertan langileen gastuen eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharren lehentasuna bildu behar dira (21/2003 Foru Arauaren 41. artikulua 7. atala).
- Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 14. artikulua arabera, zor publikoaren ordainketak erabateko lehentasuna izango du.
- Ordainketak planifikatzeko beharrezkoa da hainbat arau finkatzea. Horretarako, Udalak FONDOAK ERABILITZEKO PLANA onartu beharko du.
- Plana diruzainak prestatu beharko du, onartzeko eskumena alkateak du, eta kontrola kontu-hartzaileak izango du.

Ekimenaren helburu nagusia:

FONDOAK ERABILITZEKO PLANA onartzea.

A.4. GIZA BALIABIDEAK

A.4.1. UDALTZAINGOAREN ARAUDIA (berria)

Justifikazioa:

58/2015 Dekretua, maiatzaren 5koa, Euskadiko udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituena (EHAA 2015/05/11).

“LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

1. *Esparru-arau hauek indarra hartu eta hiru urteko epean, udaltzaingoari buruzko araudia duten udalek esparru-arau hauetara egokitu beharko dute araudi hori.*
2. *Esparru-arau hauek indarra hartzen dutenean udaltzaingoari buruzko araudi propiorik ez duten udalek ere hiru urteko epea izango dute beren araudia onartzeko.”*

Ekimenaren helburu nagusia:

Udaltzaingoko Departamentuaren antolaketaren eta funtzionamenduaren araudia onartzea.

A.4.2. TELELANAREN ARAUDIA (berria)

Justifikazioa:

Irailaren 29ko 29/2020 Errege Lege Dekretuak, Administrazio Publikoetako telelanaren arloko presazko neurriei eta Osasun Sistema Nazionalako giza baliabideei buruzkoak, COVID-19a delakoak eragindako osasun-krisiari aurre egitekoak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen testu bategina aldatu zuen, 47 bis artikulua gehituta; honela dio:

"47 bis artikulua. Telelana.

1. Urrutiko zerbitzuak emateko modalitatea da telelana, non lanpostuaren eskumen-educia, betiere zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen badute, Administrazioaren bulegoetatik kanpo garatu ahal den, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

2. Zerbitzua telelanaren bidez ematea berariaz baimendu beharko da, eta bateragarria izango da modalitate presentzialarekin. Nolanahi ere, borondatezkoa eta itzulgarria izango da, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. Estatutu hau garatzeko ematen diren arauen arabera egingo da. Arau horiek negoziozko kolektiboaren xede izango dira dagokion eremuan, eta irizpide objektiboak jasoko dituzte zerbitzua emateko modalitate horretan sartzeko.

Telelanak lana hobeto antolatzen lagundu beharko du, helburuak identifikatuz eta horiek betetzen diren ebaluatuz.

3. Telelanaren bidez lan egiten duten langileek aurrez aurreko modalitatean lan egiten duten gainerako langileen betebeharrak eta eskubide berberak izango dituzte, indibidualak zein kolektiboak, lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudi aplikagarria barne, zerbitzua aurrez aurre emateari dagozkionak izan ezik.

4. Administrazioak modalitate horretan lan egiten duten pertsonen beren jarduerarako behar dituzten baliabide teknologikoak emango dizkie eta mantenduko dizkie.

5. Telelanaren arloan, estatutu honetan eta berau garatzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira herri-administrazioetako lan-kontratuko langileak. "

Horrez gain, Azken xedapenetako bigarrenak honela dio:

"Arauk egokitzea.

Telelanari buruzko araudia errege lege-dekretu honetan aurreikusitakora egokitu behar duten administrazio publikoek sei hilabeteko epea izango dute, hura indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita."

Indarraldia urriaren 1ean hasi zenez, araudia onartzeko apirilaren 1era bitarteko epea dago.

Ekimenaren helburu nagusia:

Araudiak ezarritakoa betez, Zarauzko Udaleko langileentzako telelan modalitatea arautzea.

B) HERRITARREN ARLOA

B.1. HEZKUNTZA

B.1.1. ZARAUZKO UDALERRIKO IKASTETXEEI ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

- Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duen izena berria delako, eta ikastetxeen eskaeretan gaizki-ulerturik ez izateko.
- Irizpide gisa erabiltzaile kopurua izatean, talde handia ala txikia den ez da kontuan hartzen, eta talde txikiak dituzten ikastetxeak kaltetuta ateratzen dira.
- Orokieta herri eskolak guraso elkartetik eskatu beharra dauka. Izan ere, Jaurlaritzako IFK daukate, eta eskola publiko guztiek partekatzen dute.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntzak arautzeko oinarriak eguneratzea.

B.2. GIZARTE ZERBITZUAK

B.2.1. DIRU BALIABIDE ESKASAK DITUZTEN PERTSONEI ETA FAMILIEI BANAKAKO LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA (aldatzea)

Justifikazioa:

Legedia eta kontzeptuak eguneratzea.

Beharrezko aldaketak txertatzea, beste administrazioetatik datuak eskuratzeko (Foru Ogasuna).

Ekimenaren helburu nagusia:

Legedia eta kontzeptuak eguneratzea. Beste administrazio batzuetatik datuak eskuratzeko beharrezko aldaketak txertatzea.

B.2.2. ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA (aldatzea)

Justifikazioa:

- Erabiltzaileen ekarpenak kalkulatzeko kontuan hartzen diren errenta eta ondareak berrikustea. Zehazki, salbuetsitako errentak eguneratzea eta apartamentu bikoitzetako erabiltzaileek erabilera librerako izan behar duten kopurua zehaztea.
- Erreserbaren ordainketa-modua aldatu eta eguneratu, beste zerbitzuetara egokituz.
- Itxaron-zerrendaren nondik norakoak aztertu behar dira, eta apartamentua partekatzea baimentzen duen puntua txertatu.

Ekimenaren helburu nagusia:

Gaur egun erabiltzaile batzuek egiten dituzten ekarpenek gure gizarteko beste esparruetako errealitatearekin duten desoreka ekiditea.

Eta bestetik, apartamentu guztiak bete diren momentu honetan, itxaron-zerrendarekin egon diren arazoak konpontzea, posible bada apartamentuak konpartituz, herritar gehiagok zerbitzua erabiltzeko eskubidea izan dezaten.

B.3. GAZTERIA

B.3.1. GAZTEEK PROIEKTUAK GAUZATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI BEREZIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

- Dirulaguntza emateko irizpide bezala erabiltzen den esaldiak nahasketa sor dezake interpretatzerako orduan.
- Dokumentuan berdintasun irizpideak jasota izateko.
- Ematen den dirulaguntza handitzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntzak arautzeko oinarriak eguneratzea.
Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa modu egokian azaltzea.
Berdintasun irizpideak txertatzea.
Dirulaguntzen gehienezko zenbatekoa aldatzea.

B.3.2. GAZTERIA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK (aldatzea)

Justifikazioa:

- Dirulaguntza emateko irizpide bezala erabiltzen den esaldiak nahasketa sor dezake interpretatzerako orduan.
- Dokumentuak berdintasun irizpideak jasota izatea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntzak arautzeko oinarriak eguneratzea.
Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa modu egokian azaltzea.
Berdintasun irizpideak txertatzea.

B.4. KULTURA

B.4.1. ZARAUZKO UDALERRIKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO KULTURA EDO GIZARTE TALDEEI 2021ERAKO DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO OINARRIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

Dirulaguntza oinarri horietan zenbait puntu aldatu beharra ikusten da, dirulaguntzak duen helburua, banatzeko dagoen diru-kopurua eta prozedura eta jasotzaileek aurkezten dituzten proiektuen finantzaketaren arteko oreka bermatu dadin.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntzak arautzeko oinarriak eguneratzea.

B.4.2 BAI JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, BAI JOLAS JARDUERAK ETA BAI –JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, HERRIKO JAIK EDO BESTELAKO KULTUR EKITALDIAK DIRELA BIDE – INSTALAZIO EDO EGITURA BEHIN-BEHINEKOETAN, ERAMANGARRIETAN, EDO DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DIREN SALMENTAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (Aldatzea)

Justifikazioa:

Urte hauetako eskarmentuan oinarrituta, bide publikoko jendaurreko ikuskizunak, feria jolasak, jaietako instalazio eramangarrietako salmentak, azokak... baimentzeko kudeaketa hobetzea; legea eguneratzea; hizkuntza eta berdintasun irizpideak eguneratzea... Izena aldatzea...

Ekimenaren helburu nagusia:

Bide publikoan egiten diren jardueretarako baimenen kudeaketa hobetzea.

B.5. PAREKIDETASUNA

B.5.1. EMAKUMEEN* ETXEKO MAHAIAREN ERREGELAMENDUA (berria)

Justifikazioa:

EMAKUMEEN* ETXEko jarduerak eta ekimenak antolatzeko mahai bat sortzea aurreikusi dute etxearen funtzionamendua lantzeko egindako partaidetza-prozesuan parte hartu duten emakumeek.

Beharrezkoa da sortuko den mahai horren izaera, helburuak, osaera eta funtzionamendua jasoko duen erregelamendua egitea.

Ekimenaren helburu nagusia:

EMAKUMEEN* ETXEaren funtzionamenduan eta jardueren antolaketan emakume zarauztarren parte-hartzea arautuko duen araudia sortzea eta herritarrei helaraztea.

B.5.2. PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUTIK IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTEEI 2021ERAKO DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO OINARRIAK (aldatzea)

Justifikazioa:

Dirulaguntza oinarri horietan zenbait puntu aldatu beharra ikusten da, dirulaguntzak duen helburua, banatzeko dagoen diru-kopurua eta prozedura eta jasotzaileek aurkezten dituzten proiektuen finantzaketaren arteko oreka bermatu dadin.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntzak arautzeko oinarriak eguneratzea.

B.6. UDALTZAINGOA

B.6.1. MERKATAL ESTABLEZIMENDU IRAUNKOR BATETIK KANPOKO SALMENTAREN EGIKARITZA IRREGULATZEN DUEN ORDENANTZA (aldatzea edo berri bat egitea)

Justifikazioa:

Ordenantza berria sortu edo dagoena egokitu behar da hileko azokatik kanpo kalean egiten diren salmentak arautzeko.

Oraingo ordenantzak (1992koa) hileko azokaren ingurukoa bakarrik arautzen du.

Kale-salmentak ordenantza espezifikoa bat behar du.

Ekimenaren helburu nagusia:

Kalean egiten diren salmenta guztiak arautzea.

ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.2. ALKOHOLAREN PUBLIZITATEA, SALMENTA ETA KONTSUMOA ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da, 1/2016ko Legea eta geroko xedapenetara egokitzeko (Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa).

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.3. OSTALARITZA ETA ALKOHOLA SALTZEKO BAIMENA DUTEN MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK IREKI ETA IXTEKO ORDUEI BURUZKO ORDENANTZA. 4/1995 LEGEARI EGOKITUA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da 10/2015 Legea (abendua 23koa, ikuskizun publiko eta jolas-jardueri buruzkoa) eta 17/2019 Dekretura (otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena).

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

B.6.4. BAI JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, BAI JOLAS JARDUERAK ETA BAI –JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, HERRIKO JAIK EDO BESTELAKO KULTUR EKITALDIAK DIRELA BIDE – INSTALAZIO EDO EGITURA BEHIN-BEHINEKOETAN, ERAMANGARRIETAN, EDO DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DIREN SALMENTAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (Aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantza eguneratu behar da 10/2015 Legea (abendua 23koa, ikuskizun publiko eta jolas-jardueri buruzkoa) eta 17/2019 Dekretura (otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena).

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza eguneratzea eta ZIGORTZEKO PROZEDURA LABURTUA erabiltzeko aukera ematea.

C) LURRALDE ARLOA

C.1 HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

C.1.1. LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantzaren 3. xedapen gehigarriak ordenantza berrikusteko aukera aurreikusi zuen, hiru urte pasatu ondoren.

Hamar urte pasatu dira ordenantza onartu zenetik, eta pentsatzen da garaia dela berrikuspena egiteko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Batez ere, honako gai hauek nahi dira landu:

- Etxebizitza bihurtzeko onartutako atarieren zerrenda handitzea.
- Arautegia oro har berritzea, araudiak eta gizarteak izandako aldaketetara egokitzeko.

C.1.2. ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTE ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Animalien aldeko elkarte batek egindako eskakizunak eta Arartekoaren gomendioak jasotzeko idatziko da (2020ko irailaren 21eko ebazpena).

Ingurumen arloko zinegotziak bere ekimen propio gisa hartu du.

Ekimenaren helburu nagusia:

Batez ere, honako gai hauek nahi dira landu:

- CER metodologia ezartzea kontrolik gabeko animaliak kontrolatzeko (harrapatu, esterilizatu eta itzuli).
- Kaleko animaliak elikatzeko aukerak aztertu, eta, behar bada, jarraibideak ezarri.

C.2. HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK

C.2.1. OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK ETA ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALEK BIDE PUBLIKO ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Merkataritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioa arautzea, eta ostalaritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioaren egungo araudia berrikustea.

Ekimenaren helburu nagusia:

- Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduek bide publikoan egiten duten okupazioa arautzea; irisgarritasuna eta espazio publikoko paisajearen balioa ere zaintzea; eta eragindako espazio publikoaren berezko erabilera bermatzea, kalitatezko ostalaritza eta merkataritza zerbitzuen harmonizazioan, antolaketan eta bultzadan oinarritutako irizpide argiekin.
- Espazio publikoan jar daitezkeen elementuak zehaztea, erabiltzaileen eta bizilagunen arteko bizikidetzaren hobetzeko.
- Establezimenduei irtenbideak ematea, oinezkoen ibilbideak errespetatzeko.

Beste xedapen batzuk indargabetzea

Bide publikoak terraza eta mahaiekin okupatu eta erabiltzeko udal ordenantza (2013an onartutakoa).

C.2.2. AURRETIK UDAL LIZENTZIARIK EDUKI GABE HIRIGINTZA IZAERAKO EGINTZAK GAUZATZEKO EDO EGITEKO AHALMENA EMANGO DUTEN AURREKOMUNIKAZIOAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Ordenantzan sartzea, batetik, obrako elementu lagungarriekin bide publikoan egindako okupazioak eta, bestetik, Zarauzko Udalaren alde aurreko lizentziaren beharrik gabe jabari publikoan egiteko edo gauzatzeko jarduerak.

Ekimenaren helburu nagusia:

Plan orokorreko aurreikuspenak garatuz eta indarrean dagoen legediaren testuinguruan sartuta, ordenantzaren helburua da aurrekomunikazioaren prozeduretan sar daitezkeen jabari pribatu edo publikoko hirigintza-jardueren araubidea zabaltzea eta eguneratzea, bai eta alde aurretik udal lizentziarik behar ez duten jardueretan aritzeko edo instalazio jakin batzuk martxan jartzeko modua arautzea ere.

Obrako instalazio lagungarrien tramitazioa eta jabari publikoari eragiten dioten jardueren tramitazioa arintzea.

Beste xedapen batzuk indargabetzea

Bide publikoa terraza eta mahaiekin okupatu eta erabiltzeko udal ordenantza (2013an onartutakoa).

C.2.3. UDAL BARATZEEN EMAKIDA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA (aldatzea)

Justifikazioa:

Hamar urteko indarraldiaren ondoren, beharrezkoa da udal baratzeen ordenantza berrikustea eta eguneratzea, emakiden kudeaketa arintzeko, ekimen eta behar berriak txertatzeko eta erabiltzaileen eskaerak asetzen dituen ordenantzaren berrikuspena lortzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

- 2010ean onartu zen ordenantza egoera berri batetik abiatu zen, eta lehen aldiz 100 lursail baino gehiagoren emakida ebatzi zuen. Gaur egun gehienak erabiltzen ari dira, eta aktiboak dira; beraz, ordenantzak lehen zozketaren izaera hori galdu behar du eta emakiden berritzean eragin.
- Baratzeen emakidaren epea luzatu egiten da, irizpide berriak zehaztuz eta hamar urteko gehieneko epea ezabatuz. Izan ere, esleipen-irizpideak zehatzago jartzen dira.
- Itxarote-zerrendan dauden eskatzaileen emakida azkarra lortzeko, fidantza kuota bihurtzen da, eta ezeztatzeagatik emakida amaitzeko administrazio-epea laburtu egiten da.
- Baratzeen erabilpenari buruzko irizpideak eguneratu eta zehaztu egiten dira, hala nola, animalien debekua, ureztapena, herbiziden erabilpena, konpostagailuak, hondakinak, ibilgailuak eta azken 10 urteetako esperientzien ondorioz ikasitakoa.

C.2.4. BIDE ETA ESPAZIO PUBLIKOETAN ETA ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIO PRIBATUETAN JARDUERAK, OBRAKO ELEMENTU OSAGARRIEN INSTALAZIOAK, ZANGAK, HARGUNEAK ETA SAREEN BANAKETAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA (aldatzea)

Justifikazioa:

Bide publikoa obrako elementu lagungarriekin okupatzeko indarreko ordenantzaren araubidea berrikusi eta eguneratzea, udal eskumenetara mugatuta, eta instalazioetan derrigorrez bete beharreko segurtasun-araudiak ez pilatzea, instalazio horiek eragin ditzaketen pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko araudiak jasota baitaude estatu edo erkidego mailako araudietan. Era berean, baldintza batzuk jartzea udal bide eta espazio publikoetako hegal, zoru eta lurpean egiten diren zerbitzuen obretan eta instalazioetan betetzeko.

Jardueren aurrekomunikazioaren kontzeptua honako hauetara ere zabaltzea: jabari publikoaren okupazioa eskatzen duten obrako instalazio lagungarriak, zangak, harguneak, mantentze-lanak eta sare-banaketak.

Ekimenaren helburu nagusia:

- Baldintza batzuk jartzea a) udal bide eta espazio publikoetako hegal, zoru eta lurpean egiten diren jardueretan eta zerbitzuen instalazioetan betetzeko, eta b) Zarauzko udal mugapeko bide publikoa obrako edozein elementu edo

bitarteko lagungarriekin okupatzeko. Horien helburua da oinezkoen segurtasuna, hiri-mugikortasuna eta ibilgailuen trafikoa bermatzea, eta bide publikoak eta hiri-altzariak hobeto zaintzea.

- Bide publikoari eragiten dioten obrako instalazio lagungarrien eta jardueren tramitazioa arintzea.
- Instalazioetan derrigorrez bete beharreko segurtasun-araudiak ez pilatzea, instalazio horiek eragin ditzaketen pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko araudiak jasota baitaude estatu edo erkidego mailako araudietan.
- Kontuan hartzea herritarren eta Administrazioaren arteko harremanak errazteko Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako 2006/123/EE Zuzentaraua indarrean sartu denetik sortu den esparru juridiko berria. Berrienen artean dago 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, ekonomia iraunkorrarena. Horrek aldaketa bat sartu zuen apirilaren 2ko 7/1985 Legean (toki araubidearen oinarriak arautzen dituena), esaten baitu jarduera bat egiteko ez bada behar hura baimentzeko alde aurreko lizentziarik, udal entitateek behar diren komunikazio-prozedurak jarri eta planifikatuko dituztela. Jabari publikoaren okupazioa behar duten jardueretara ere zabaltzea aurrekomunikazioaren kontzeptua. Tramitazio hori kendu egin da ordenantza honetatik, beraz, Aldez Aurreko Komunikazioak arautuko dituen udal ordenantzako xedapen bereziek arautuko dute.
- Obrako instalazio lagungarrien baimen-araubidea arrazionalizatzea herritarren ohiko erabilera orokorrarekin. Herritarren segurtasunak lehentasun osoa izango du, eta interes publikoak eta pribatuak bateragarri egingo dira. Eta hori guztia, udal jabari publikoaren okupazioaren esparru juridikoa hobetzeko eta, azken finean, udal kudeaketa eraginkorragoa lortzeko eta herritarrari zerbitzu hobea emateko.

Beste xedapen batzuk indargabetzea

- Bide publikoan aldarnioak, garabiak nahiz obrak egiteko beste edozein lagungarri jartzeko Udal Ordenantza.
- Zarauzko udal mugapean edukiontzia jartzeko bide publikoaren erabilera berezia arautzen duen Udal Ordenantza.

8.- BAKE-EPAILEA ETA ORDEZKO BAKE-EPAILEA HAUTATZEA

Espedientea: 2020III0025

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=8>

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

| | | |
|---------------|----|--|
| Botoak alde: | 20 | 10 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 1 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak |
| Botoak aurka | - | |
| Abstentzioak: | - | |

“2016ko Uztailaren 28an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak Ignacio Iruretagoyena Iruretagoyena jauna izendatu zuen Zarauzko udalerriko bake-epaile, eta Luis Epelde Aramendi jauna Zarauzko udalerriko ordezkoko bake-epaile, biak ala biak lau urteko epealdirako.

Lau urterako izendatua izan zirenez, epe hori amaituta, Botere Judizialeko Lege Organikoak eta ekainaren 7ko 3/1995 Araudiak, Bake Epaileei buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Udalak abian jarri zuen Zarauzko udalerriko bake-epailea hautatzeko administrazio-espedientea.

Horren berri eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (232 zk., 2020ko abenduaren 3koa), Diario Vasco egunkarian (2020ko abenduaren 14koa), Udaleko iragarki-taulan zein web-orrian eta Azpeitiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegian argitaratu zen ediktuaren bitartez; eta 15 eguneko epea zabaldu zen interesdun orok izendapenerako eskaera egin zezan.

Horretarako emandako epean, bai Ignacio Iruretagoyena Iruretagoyena jaunak eta bai Luis Epelde Aramendi jaunak, Karguan jarraitzeko borondatea adierazi diote Udalari, nahiz eta titularra izatetik ordezkoa izatera eta alderantziz aldatu diren.

Legian aurreikusitako prozeduraren arabera, Udalbatzarrari dagokio hautatzea, legezko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean, kargua betetzeko egokiena iritzitakoa. Horretarako, zinegotzien legezko gehiengo osoaren aldeko botoak behar ditu.

Aurrekoa ikusita eta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatza osatzen duten 21 kideetatik bilkuran dauden 20 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- LUIS EPELDE ARAMENDI Zarauzko bake-epaile eta IGNACIO IRURETAGOYENA IRURETAGOYENA ordezko bake-epaile proposatzea. Honako hauek dira proposatutako pertsonen datu pertsonalak:

BAKE EPAILEA: LUIS EPELDE ARAMENDI

- NAN zk. 72423543Q
- Adina: 77 urte
- Helbidea: Zarautz. Araba kalea 14, 4. esk.
- Telefonoa: 943834392 / 629822942
- Lanbidea: Erretiratua

ORDEZKO BAKE-EPAILE TITULARRA: IGNACIO IRURETAGOYENA IRURETAGOYENA

- NAN zk. 15093061R
- Adina: 84 urte
- Helbidea: Araba kalea, 14, 4. ezk.
- Telefonoa: 943834085 / 692713880
- Lanbidea: Erretiratua

Proposatutako pertsonak berriaz onartu behar dute kargurako izendapena; eta, halaber, Botere Judizialeko Lege Organikoak eta ekainaren 7ko 3/1995 Araudiak, Bake Epaileei buruzkoak, kargu judizialentzat aurreikusten dituzten ezgaitasun eta bateraezintasuneko inolako kausatan ez daudela aitortu behar dute.

Bigarrena.- Akordio hau Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko presidente jaunari igortzea, hark, bere aldetik, Udalak hautatutako pertsonen izendapena egin dezan, lau urteko epealdirako."

9.- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN ALDAKETA (TAO). 2021. URTEA. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientea: 2013I1330001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=9>

Akordio-proposamena irakurri eta gero, **Mugikortasuneko zinegotziak** gaiaren inguruko azalpenak eman ditu. Ondoren, udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Eta eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

| | | |
|---------------|----|------------------------------------|
| Botoak alde: | 11 | 10 EAJ-PNV, 1 PSE-EE |
| Botoak aurka | 9 | 8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak |
| Abstentzioak: | - | |

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2013ko maiatzaren 20an egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak onartu zuen ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA (TAO).

Gerora, Udalbatzarrak ordenantza haren aldaketa batzuk onartu zituen.

Orain beharrezkotzat jo da ordenantzaren puntu batzuk aldatzea, egungo beharrei egokitzeko.

Hori horrela, eta 2021eko urtarrilaren 14an egindako bileran Antolakuntzako informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) aldaketari, erantsitako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantza behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.”

**ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO
ORDENANTZA.**

2021EKO URTARRILEKO BERRIKUSPENA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea da. Horretarako, leku eta denbora mugak ezarriko dira zerbitzu partikular edo publikorako erabiltzen den 3.500 kg arteko edozein ibilgailu bide publikoko leku edo zonetan eta bertan jarritako aparkalekuetan aparkatzeko.

Helburua da oreka handiagoa lortzea herriko hainbat zonatan aparkatzeko dagoen eskaintzaren eta eskariaren artean. Helburu hori lortzeko, Udalak bere kabuz edo zerbitzu hori emateko kontratatutako enpresen laguntzarekin bete ditzakeen mugatze, kontrol eta inbertsio jarduerak garatu dira.

2. artikulua. Zonak eta seinaleak

Araubide berezi honen xede diren zonak Ordenantza honetako planoetan jasota daude. Zona horiek behar bezala seinaleztatuko dira, eta seinale bertikalak (ahal den lekuetan) eta horizontalak jarriko dira.

Udalbatzarrak ahalmena izango du zona arautuak eta horien izaera aldatzeko, baina aldez aurretik zona horietako bizilagunen parte-hartzea bermatuko duen prozedura beteko du.

3. artikulua. Ordainketa

Araututako aparkaleku moduan behar bezala seinaleztatutako leku edo bide publikoan aparkatzen bada ibilgailua, ordaindu egin beharko da, erabiltzaileak hala eskatzen ez badu ere.

Aparkaldi arautuko gunean aparkatzeko, baimena eskuratu beharko da, horretarako jarritako sistema erabilia eta dagokion tasa ordaindu ondoren. Baimen horrekin batera aparkatzeko txartel bat (tiketa) emango da, edo ez.

Aparkatzeko txartela (tiketa) ateratzea beharrezkoa den kasuetan, tiket hori ibilgailuaren haizetakoaren barruko aldean jarriko da, kanpotik erraz irakurtzeko moduan.

Dagokion ordenantza fiskalean zehaztu eta eguneratuko dira tarifak.

4. artikulua. Aparkamenduaren denboraldiak, indarreko ordutegiak eta **gehieneko denbora**

Bi denboraldi bereizten dira:

- a) Udaldia (ekainaren 1etik irailaren 30era, biak barne).
- b) Urteko gainerako egunak.

Zirkulazio-baimena Zarautzen duten ibilgailuek dohainik aparkatu ahalko dute araubide arrunteko ~~eta errotazio handiko~~ zona guztietan, 13:00etatik 16:30era. Aparkamendua baimentzeko txartela behar bada, dagokion tiketa atera beharko da. ~~Gainera, egoiliarrek, udaldian, beren zonako errotazio handiko gunean aparkatu ahalko dute, igandetan, jaiegunetan eta larunbatetan 13:00etatik aurrera, tasarik ordaindu beharrik gabe.~~

Udalerrri osoan egoiliarrentzat gordetako zonak indarrean egongo dira eguneko 24 ordutan eta asteko 7 egunetan.

Aparkaldi arautuak **ordutegi hauek** izango ditu:

a) UDALDIA:

Udaldian, astelehenetik igandera, 09:00etatik 20:00etara.

Igande eta jaiegunetan, aparkamendu arautuko zona normal bezala arautuko dira errotazio handiko zonak, ondorio guztietarako, eta ez errotazio handiko zona bezala.

b) URTEKO GAINERAKO EGUNAK:

Urteko gainerako egunetan, hauek egongo dira indarrean udalerrri osoan: errotazio handiko zonak, egoiliarrentzat gordetako zonak eta 1 zonako aparkamendu arautuko gune normalak.

Honakoa izango da **errotazio handiko guneetako eta 1-zonako araubide arrunteko zonetako** ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

Denboraldien hasiera eta bukaerako egunak eta zonen ordutegiak aldatu ahal izango dira, ezohiko izaeraz, zerbitzu teknikoek hala proposatuta, **Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emandako ebazpen arrazoituaren bidez.**

Araubide arrunteko zonetan edo zona urdinetan aparkatzeko gehienezko iraupena 660 minutukoa izango da (11 ordu), eta errotazio handiko guneetan 90 minutu, ibilgailu guztientzat.

5. artikulua. Salbuespenak

Ondorengo ibilgailuek ez dituzte ordainduko ordenantza honetan araututako tasak, adierazitako bide edo zonetan aparkatzeagatik:

- a) Motozikletak, ziklomotorrak eta bizikletak, baldin eta araututako aparkamendurako adierazitako plazak okupatzen ez badituzte eta horrelakoak aparkatzeko egokitutako lekuetan baldin badaude.
- b) Beren kategoriarako edo jarduerarako gordetako zonetan aparkatzeko udal baimena duten ibilgailuak.
- c) Zamalanak egiteko jarritako leku eta orduetan horrelako lanak egiten ari diren merkataritzako ibilgailuak.
- d) Autotaxi ibilgailuak, gidaria bertan eta zerbitzuan dagoenean.
- e) Hiletetako ibilgailuak, zerbitzuan daudenean.
- f) Larrialdietako ibilgailuak: anbulantziak, su-hiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta polizia; horiek guztiak zerbitzuan daudenean.
- g) Barruan gidaria edo bidaiariren bat duen ibilgailu automobila, aparkaldia bost minutu baino gutxiagokoa denean.
- h) Mugikortasun urriko pertsonen jabetzako ibilgailuak edo bereziki egokitutakoak, zirkulazio baimena dutenak eta beren titularrek erabiltzen dituztenean, baldin horrelakoak aparkatzeko lekuetan aparkatuta badaude.
- i) Horretarako bereizgarria indarrean duten ibilgailuak.
- j) Zerbitzu publikoei atxikitako ibilgailuak, behar bezala errotulatu eta identifikatuak, benetan zerbitzuan daudenean.
- k) **Zirkulazio-zerga Zarautzen ordaintzen duten ibilgailuek dohainik izango dute aparkaldiaren lehen ordu erdia araubide arrunteko zonetan edo zona urdinetan. Jarritako sistemak hala eskatzen badu, dagokion txartela atera beharko da (tiketa).**

6. artikulua. Araubide bereziko aparkalekuak

Zerbitzua arautzeko, aparkaleku-araubide bereziko ondorengo zonak jarri dira, eta honakoen arabera arautuko dira:

1.- Egoiliarrentzat gordetako zonak:

Dagokion zonan bizi diren pertsonen ibilgailuak soilik aparkatzeko izango dira horrela seinalizatutako guneak, betiere, 7, 8, 9, 10, 11 edo 12. artikuluetan araututako aparkaleku-bereizgarriren bat baldin badute.

1 zonako bereizgarria duten ibilgailuek Salberdin izenarekin ezagutzen den aparkalekuan aparkatu ahaliko dute, azken zona horretan bizi direnen eskubide berdinekin.

~~6 zonako bereizgarria duten ibilgailuek 5 zonan ere aparkatu ahaliko dute, azken zona horretan bizi direnen eskubide berdinekin.~~

~~8 zonako bereizgarria duten ibilgailuek (Hiruerreketa), beren guneaz gain, bat egin dezakete ordenantza honetako 11. artikuluearekin, eta bi guneetan egoiliar izango dira, eskubide berdinekin.~~

~~Egoiliar txartela duen ibilgailu orok beste edozein guneetan egoiliarrentzat gordetako zonetan aparkatu ahaliko du, gehienez ordubetez eguneko, eta urteko edozein garaitan. Baimendutako denbora ezingo da, inolaz ere, luzatu edo zatitu.~~

~~Jartzen den sistemak hala eskatzen badu, dagokion txartela atera beharko da.~~

~~1 zonako bereizgarria duten ibilgailuak 2 zonan aparkatu ahaliko dira, azken zona horretako bizilagunen eskubide berekin.~~

2.- Errotazio handiko zonak:

Aparkaldia gehienez 90 minutukoa izango da ibilgailu guztientzat. Denbora hori igaro ondoren 16. artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatuko dira.

Ibilgailu guztiak bete beharko dituzte zona horietan aparkatzeko denbora-mugak eta ordaintzeko betebeharra, bai eta ordenantza honetan aurreikusitako bereizgarriren bat duten ibilgailuek ere.

Araubide Bereziko Aparkalekuen kokapen zehatza, ezohiko izaeraz, **Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emandako erabaki arrazoituaren bidez jarriko da, zerbitzu teknikoek hala proposatuta.**

3.- Autokarabanak aparkatzeko zona:

Urte osoan funtzionatuko du. Ibilgailu horiek gehienez ere **2 egunetan 3 egunetan aparkatu ahaliko dira udaldian eta 5 egunetan urteko gainerako egunetan.** Denbora hori igaro ondoren ibilgailua mugitu egin beharko da. Ez da aparkatzeko baimen berririk emango, aurreko baimena bukatu eta **7 5 egun** pasatu arte.

Zona horren kokapena aldatu daiteke edo zona bera aldatu, handitu edo txikitu daiteke, Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emandako ebazpen arrazoituaren bidez.

4.- Aldi bateko edo behin-behineko aparkalekuak.

Zirkunstantziak hala eskatzen duenean eta behar edo egoera bereziei aurre egiteko, aldi bateko edo behin-behineko aparkalekuak gaitu ahaliko dira, zerbitzu teknikoek hala proposatuta eta Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emandako ebazpen arrazoituaren bidez.

Ibilgailuak gune horietan aparkatu ahaliko dira, aurretik dagokion ordenantza fiskalean aurreikusitako tasa ordainduta. **Aparkatzeko txartela (tiketa) lortzea beharrezkoa izan daiteke, edo ez.**

7. artikulua. Egoiliarren bereizgarria

Oro har, etxebizitza bakoitzeko gehienez hiru egoiliar-txartel eman ahal izango dira. Hala ere, Udalak egoiliarrentzako aparteko bereizgarriak eman ditzake, mugikortasun urriagatik edo salbuespenezko beste arrazoi batengatik.

Egoiliarrentzako bereizgarria emateak dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tasa sorraraziko du.

Zarauzko Udalak egoiliar bereizgarriak emango dizkie honako baldintzak betetzen dituzten ibilgailuei:

- Ibilgailuaren titularra Zarautzen erroldatutako pertsona fisikoa izatea eta dagokion zonan inskribatutako etxean bizitzea.
- Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.
- Ibilgailua Zarauzko Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergaren erroldan alta emanda egotea eta aurreko ataletan adierazitako titulartasuna eta helbidea bat etortzea. Gainera zerga hori ordainduta eduki beharko da.
- Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, hori ordainduta izatea. Arau hau etxebizitza bereko ibilgailuei aplikatuko zaie, baldin horren titulartasun-aldaketarik gertatu ez bada.
- Dagokion Ordenantza Fiskalean egoiliarrentzako bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.

8. Egoiliarren aparteko bereizgarria

Egoiliarren aparteko bereizgarria lortu ahal izango dute ohiko bizilekua Zarautzen izanik, bertan erroldatuta egon eta ibilgailua errentamendu finantzarioan (leasing edo renting) duten pertsona fisikoek. Hori lortzeko, ondorengo baldintza guztiak ezinbestez bete beharko dira:

- Gidabaimena indarrean izatea.
- Ohiko helbidea Udal Erroldan eta gidabaimenean azaltzen den bera izatea, eta, benetan, dagokion zonaren barruan **(eta 1 zonaren barruan, dagokion sektorean)** inskribatutako etxebizitzan bizitzea.
- Ibilgailuaren pisua gehienez 3.500 kg-koa izatea.
- Ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari bezala azaltzea.
- Udalak jarritako trafiko-isunik ordainduta izatea, halakorik edukiko balu. Arau hau etxebizitza bereko ibilgailuei aplikatuko zaie.
- Dagokion Ordenantza Fiskalean bertakoentzako bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.

- g) Leasing edo renting-aren kontratu originala eta ibilgailuaren aseguru-poliza aurkeztu beharko dira, baita agiri horien fotokopiak ere.

Talde horretan egongo dira enpresaren ibilgailua euren zerbitzura duten gidariak. Kasu horretan g) letrako betebeharraren ordez honakoa aurkeztuko da: eskatzailearen eta ibilgailuaren enpresa titularraren arteko lan-harremana frogatzeko agiria. Justifikatu beharko da enpresak baimena eman diola pertsona horri ibilgailua berak eskusiboki erabiltzeko, bai lanorduetan bai lanorduetatik kanpo.

9. artikulua. Jarduera ekonomikoekin lotutako ibilgailuen aparteko bereizgarria

Jarduera ekonomikoekin lotutako ibilgailuei aparteko bereizgarria eman ahal izango zaie ondoko baldintzak betetzen dituen eta dagokion zonan dagoen entitate juridiko edo fisikoari:

- a) Ibilgailuaren titularra pertsona juridiko edo fisikoa izatea eta jardueraren helbidea araututako zonan [eta sektorean](#) egotea. Gainera enpresa edo jarduera horrek jardueraren aurrekomunikazioa eginda eduki behar du Udalean, edo establezimendua irekitzeko lizentzia eduki behar du, edo jarduera legezkatze prozesuan dagoela justifikatu behar du.

Epigrafe honetan sartzan dira, baita ere, Zarauzko Udal Merkatuko salmenta-postu ez finkoetako adjudikaziodunak.

- b) Ibilgailua Zarauzko Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergaren erroldan alta emanda egotea eta aurreko ataletan adierazitako titulartasuna eta helbidea bat etortzea. Gainera zerga hori ordainduta eduki beharko da.

Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat. Zarauzko Udal Merkatuko salmenta-postu ez finkoetako adjudikaziodunek ez dute baldintza hau bete beharrik izango.

- c) Bere jardueraren izaera berezia dela-eta, ibilgailua etengabe erabili behar izatea. Ibilgailuaren beharra justifikatu egin beharko da. Udalaren irizpidearen mende egongo da aparteko bereizgarria emateko erabakia.

Behar bezala erregistratutako profesional taldeek (gremioek), aparteko kasuetan, euren jarduerarako ibilgailuaren beharra badute, bereizgarri honek eskubidea emango die araututako zona guztietan aparkatzeko, euren helbide sozialaren kokapen-guneaz gain. Eskubidea emango die, baita ere, egoiliarrentzako araubide bereziko zonetan aparkatzeko, **19:00ak 20:00ak** arte.

Aparteko kasuetarako bereizgarriak, ordea, ez du eskubiderik ematen jaiegun eta larunbatetan eguerdiko 13:00etatik aurrera euren zonatik kanpo aparkatzeko. Salbuespenezko kasuetan soilik eman ahalko du organo eskudunak ordutegi horretatik kanpo aparkatzeko baimena.

- d) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, horiek ordainduta izatea. Arau hau entitate juridiko edo fisiko bereko ibilgailuei aplikatuko zaie.

- e) Jarduera ekonomikoentzako aparteko bereizgarria lortzeko, dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tarifa ordaintzea.

Jarduera bakoitzeko gehienez hiru bereizgarri eman ahalko dira. Salbuespenezko kasuetan, hiru bereizgarri baino gehiago eman ahalko dira. Kasu horiek bereziki aztertu eta erabakiko ditu baimendutako kudeaketa-organismoak.

Zarauzko Udal Merkatuko salmenta-postu ez finkoetako adjudikaziodunen kasuan, bereizgarri bakarra emango da salmenta-postu bakoitzeko.

10. artikulua. Etxebizitzen jabe edo errentari direnen bereizgarria

Herrira etortzen diren pertsonak euren etxebizitza (jabetzakoa edo alokatua) aparkaleku-zerbitzu arautua duen ingururen batean badute, zona arautuan aparkatzeko baimena emango dien bereizgarria lortu ahal izango dute, tiketa erosi beharrik gabe eta aparkatzeko denbora mugarik gabe.

Bereizgarri hori une horretan indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera baimenduta dagoen ibilgailu kopururako izango da. Bereizgarri hori emateko, 15 egun baino gehiago pasatu behar dira herrian.

Bereizgarri hori lortu nahi duten pertsonak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Araututako zonaren mugapean inskribatuta dagoen etxebizitza baten jabe edo errentari izatea.
- b) Ibilgailuaren jabe izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.

Bestalde, ibilgailuaren jabe izan gabe ere lor daiteke, baldin eskatzailea udako bereizgarria behar duen ibilgailuaren aseguruaren hartzailea bada.
- c) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, horiek ordainduta izatea.
- d) Dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tarifa ordaintzea.

Ez zaie artikulu honetan aurreikusitako bereizgarria emango, TAO zonan aparkatzeko baimena duten ibilgailuen titularrekin batera herriko etxebizitzetan udaldia pasatzen duten pertsonen, salbuespen batekin: eskatzailea eta etxebizitzaren jabe eta erroldatua(k) odoleko ahaideak izatea. Aldez aurretik ahaidetasun hori frogatu egingo da. Edonola ere, ahaidetasuna, gehienez, bigarren mailakoa izango da.

Eskaera, etxebizitzaren jabeak egin beharko du.

10 bis artikulua. Egoiliar ez diren langile eta autonomoen aparteko bereizgarria

Herrian erroldatuta ez daudenek baina bertan lan egiten dutenek aukera izango dute uda partean aparkatzeko bereizgarria eskatzeko.

Hilabeterokoa izango da, eta ezingo da zatitu.

Bereizgarriak **araubide arrunteko zonan aparkatzeko balioko du (zona urdinean).** ~~eskatzaileak zehaztuko du lekua.~~

1 zonan lan egiten duten eskatzaileek **2 zonako araubide arrunteko zonan aparkatu ahalko dute (zona urdina).** ~~Herrikosoro kalean eta Salberdinen bakarrik izango dute aparkatzeko aukera.~~

Bereizgarria indarrean egongo da langilearen kontratuak dirauen bitartean, astelehenetik ostiralera edo astelehenetik igandera, kontratu horren baldintzen arabera.

Bereizgarria eskuratu nahi duten pertsonen ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Indarrean duten lan kontratua aurkeztea. Autonomoen kasuan, berriz, Zarautzen Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan alta emanda izatea eta zehaztutako zonaren barruan jarduera burutzeko lokal edo etxe bat alokatuta edo jabetzan izatea.
- b) Ibilgailuaren jabea izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.
- c) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, horiek ordainduta izatea.
- d) Dagokion Ordenantza Fiskalean bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.
- e) Eskaera urtero berri beharko da.

11. artikulua. Arautu gabeko zonetako egoiliarren eta inguruko udalerrietako egoiliarren bereizgarria

- a) Zarautzen erroldatutako pertsonak izanik, ordenantza honek arautzen dituen aparkaleku-zonen mugetatik kanpo bizi direnek ere aparkatzeko bereizgarria eskuratu ahalko dute. Bereizgarri horrek baimena emango die araututako zona batean aparkatu ahal izateko, tiketa lortu gabe eta denbora mugarik gabe.

Bereizgarria gehienez bi ibilgailurentzat izango da, eta **2 zonarako bakarrik.** ~~Eskatzaileak zehaztuko du zein zona aukeratzeko duen, 1 eta 6 zonak izan ezik.~~

Bereizgarria eskuratu nahi duten pertsonen 7 edo 8 artikuluetan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte, honako hau izan ezik: ordenantza honek arautzen duen zona berean egoiliar izateari buruzkoa.

- b) Aiako Laurgain, Elkano eta Urdaneta auzoetan eta Getariako eta Zumaiako Meaga auzoan, 2. eranskinean zehaztutako katastro-partzeletan erroldatutako pertsonak.

Bereizgarriak ibilgailu bakarrarentzat balioko du eta **4 zonarako 2 zonarako.**

Bereizgarria eskuratu nahi duten pertsonen baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) II. eranskinean zehaztutako katastro-partzeletakoren batean erroldatuta egotea.
- b) Ibilgailuaren jabe izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.
- c) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, horiek ordainduta izatea.
- d) Dagokion Ordenantza Fiskalean bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.
- e) Eskaera urtero berritu beharko da.

11 bis artikulua. Tiket bereziak

Udaldian eguneko edo frakzioko tiketak edo tiket bereziak lortu ahalko dira, honako kasu hauetan:

- a) Bizitoki publikoaren erabilera duten establezimenduek, aldi baterako ostatua emateko direnak (hotelak, hostalak, egoitzak, pentsioak, apartamentu turistikoak, etab.), eguneko tiketak lortu ahalko dituzte, araubide arrunteko zonetan aparkatzeko.

Tiket horrekin aukera izango dute establezimendua dagoen zonaren barruan (~~eta 1 zonaren barruan dagokion sektorean~~) egun osoz aparkatzeko. Establezimenduko bezeroek soilik erabili ahalko dute tiket hori. Tiketak behin erabiltzeko izango dira, eta tiket hori lortzeko, erabiltzaileak kode bat sartu beharko du parkimetroan.

- b) Etxebizitza bakoitzeko eguneko edo 4 orduko kode edo tiket kopuru jakin bat lortu ahalko da. Tiket horrek aukera emango du etxebizitza dagoen zonako araubide arrunteko zonetan aparkatzeko. Tiketak behin erabiltzeko izango dira, eta tiket hori lortzeko, erabiltzaileak kode bat sartu beharko du parkimetroan.
- c) Aldi baterako ostatua emateko ez diren merkataritzako establezimenduek ere kode batzuk lortu ahalko dituzte, aparkamendu arautuaren zerbitzua kudeatzen duen enpresaren bulegoetan. Kode horien bidez, dohainik aparkatzeko denbora ematen duen tiketa atera dezakete erabiltzaileek.

Tiket hori soilik establezimenduko bezeroek erabili ahalko dute. Tiketak behin erabiltzekoak izango dira, eta erabiltzaileak egiten duen hurrengo aparkamenduan erabili ahalko du. Tiketa lortzeko, erabiltzaileak kode bat sartu beharko du parkimetroan. TAO araubideko edozein zonatan erabili ahalko da, bai araubide arrunteko zonetan eta bai errotazio handiko zonetan ere, bi orduetik gorako tiketak izan ezik, horiek ezingo baitira errotazio handiko zonetan erabili.

Kasu guztietan, baimen edo kode horiek aparkamendu arautuaren zerbitzua kudeatzen duen enpresaren bulegoetan lor daitezke, **edo enpresa kudeatzaileak jarritako e-mail edo beste bitarteko baten bidez eskatu ahal izango dira**. Baimen horiek lortzeko, eskatzaileak frogatu beharko du jarduera egiteko behar diren betebeharrak administratiboak betetzen dituela (irekitzeko lizentzia, aurrekomunikazioa edo horretarako gaitzen duen beste edozein titulu), edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kopia aurkeztuko du.

~~Arautu gabeko guneetan dauden establezimenduek ezingo dute eguneko tiket hori lortu.~~

12. artikulua. Mugikortasun urriko pertsonen gidatutako ibilgailuen bereizgarria

Ezintasunak dituzten pertsonentzako Aparkaleku Txartelarekin identifikatuta dauden ibilgailuek bakarrik aparkatu ahal izango dute mugikortasun urriko pertsonentzako gordetako aparkalekuetan.

Plaza horiek bertikalki eta horizontalki seinaleztatuko dira, modu egokian.

Plaza horietan aparkatzeko gehieneko denbora-muga 24 ordukoa izango da. Denbora hori amaitutakoan, ibilgailua beste aparkaleku batera mugitu beharko da. Ezingo da aparkaleku erreserbatu berean aparkatu azken aparkalditik 12 ordu pasatu arte.

Honako aparteko araubidea aplikatuko zaie Ezintasunak dituzten pertsonentzako Aparkaleku Txartela indarrean daukaten eta ibilgailuaren titularra Zarauzko udal mugapean erroldatuta duten pertsonen gidatzen dituzten ibilgailuei:

- a) Ordenantza honetako 7. artikuluko a), b) eta c) ataletan jasotako baldintzak bete beharko dituzte, edo, bestela, 8. artikuluan jarritakoak.

- b) Mugikortasun urriko pertsonentzako bereizgarria eskuratu ahal izango dute, eta ibilgailuaren aurreko haizetakoaren barruko aldean itsatsi beharko dute, kanpotik ondo irakurtzeko moduan.
- c) Bereizgarri horren titularrek aparkaldi arautuko **zortzi** edozein **zonatan** aparkatu ahaliko dute – mugikortasun urriko pertsonentzako gorde gabeko plazak – egoiliarrentzat jarritako baldintza berdinetan. Errotazio handiko eremuetan ez da eskubide hori aplikatuko.

13. artikulua. Bereizgarria eskatzea

Ordenantza honetan definitutako bereizgarriak lortu nahi dituztenek egiaztatu beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- 1) Udalak horretarako jarritako eskaera-inprimakia.
- 2) NANaren fotokopia edo nortasuna egiaztatzeke beste edozein agiri. Pertsona juridikoa denean Identifikazio Fiskaleko Kodea.
- 3) Ibilgailuaren zirkulazioko baimenaren fotokopia.
- 4) Dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tarifaren diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria.
- 5) Etxebizitzan jabe edo errentarientzako bereizgarria lortzeko: herri-kontribuzioaren ordainagiria edo behar bezala baimendutako alokairuaren kontratua (Foru Ogasunak ikus-onetsia).
- 6) Jarduera ekonomikoetarako bereizgarria lortzeko: titularrak justifikatu beharko du bere jarduera ekonomikorako etengabe erabili behar duela ibilgailua.
- 7) Enpresaren ibilgailua euren zerbitzura duten gidariek egiaztatu beharko dute, batetik, ibilgailuaren enpresa titularraren eta eskatzailearen artean laneko harremana dagoela, eta bestetik, enpresak baimena eman diola pertsona horri ibilgailua berak eskusiboki erabiltzeko, bai lanorduetan bai lanorduetatik kanpo.
- 8) Mugikortasun urriko ibilgailuen titularrek, berriz, agiri bidez frogatu beharko dute zirkunstantzia hori.
- 9) Garajea araututako zonaren batean jabetzan edo errentan daukaten egoiliarrek ez badute bereizgarriak eskatzen, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALEAN jarritako hobaria izango dute, halakorik balego. Hobaria eskatu egin beharko da, eta agiri bidez frogatu.

Agiri horiek jatorrizkoekin batera aurkeztuko dira alderatu ahal izateko. Hala ere, Udalak eskubidea izango du beste edozein agiri eskatzeko eta, gainera, ekarritako datuen zintzotasuna egiaztatzeke beharrezko frogara eta ikerketak ofizioz egiteko.

- a) Egoiliarrentzako bereizgarria eskatu duenaren benetako eta ohiko bizilekua zein den frogatzea, egoiliarrentzako bereizgarria eskatu duenaren etxebizitzan bertan. Nahitaezkoa eta ezinbestekoa da titulartasuna eta helbidea ibilgailuen udal erroldan inskribatutakoekin bat etortzea.
- b) Ibilgailua ZARAUZKO UDALERRIKO IBILGAILUEN ZIRKULAZIO-ZERGAREN ERROLDAN alta emanda dagoela eta zerga hori ordainduta duela frogatzea.
- c) Legez jarritako epeetan Udalarri ordaindu gabeko trafikoko isunik ez daukala frogatzea.

Ordenantza indarrean sartzen denean, bereizgarria eskuratu nahi duten interesdun guztiek beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, eta dagokion ordenantza fiskalean jarritako tasak ordaindu beharko dituzte.

Bereizgarrien erabilera eta indarraldia buruz 14. artikuluan jarritako xedapenei utzi gabe, interesdunek lau urtetik behin kudeaketa-organoari behar diren agiriak aurkeztuko dizkiote, haren aurrean justifikatzeko bereizgarria lortu eta erabiltzeko baldintzak betetzen jarraitzen dutela. Hala eta guztiz ere, erabiltzaileari edozein unetan eskatu ahal izango zaio baldintza horietan egunean dagoela berresteko.

14. artikulua. Bereizgarriaren erabilera eta indarraldia

Ordenantza honetan definitutako bereizgarrien onuradunek beren zonako toki libreetan denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute, **errotazio handiko zonatan bisitariarentzat gordetako zonatan** izan ezik.

Hala eta guztiz ere, egoiliarren ibilgailua espazio berean jarraian aparkatuta edukitzeko gehienezko denbora zortzi astekoa izango da, ezinbesteko arrazoiengatik baimen berezia eskuratu ezean, behintzat. **Baimen hori Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emango du, ebazpen arrazoitu baten bidez.** Zortzi aste horiek igarota, ibilgailua beste aparkaleku batera aldatu beharko da. Ezin izango da berriro leku berean aparkatu, azken aldiz bertan aparkatu zenetik 24 ordu igaro arte.

Bereizgarria ibilgailuaren haizetakoaren barrualdean jarri beharko da, kanpotik ondo ikusteko moduan. Bereizgarria baliagarria izango da zerbitzu publikoa indarrean izango den urtealdirako edo, udaldirako emandako bereizgarrien kasuan, zehaztutako eperako. Bereizgarri hori eskatzailearentzat eta eskatutako ibilgailurako bakar-bakarrak izango da.

Bereizgarria jaso duten eskatzaileak izango dira horien erantzule, eta etxebizitza edo ibilgailua edo bereizgarria eduki ahal izateko edozein baldintza aldatzen dutenean, Udalari jakinarazi beharko diote gehienez ere astebeteko epean. Hala, beste bereizgarri bat emango zaie, horretarako eskubiderik izanez gero edo, bestela, lehendik zutena baliogabetuko zaie. Bi kasuetan bereizgarria itzuli egin beharko dute.

Bereizgarria lapurtu edo galtzen bada Udalari lehenbailehen jakinaraziko zaio.

Bereizgarria indarrean izango da, ekitaldi fiskalaren barruan bereizgarriari eman zaion denboraldian. Epealdi hori amaituta, ez du baliorik izango. Hala ere, Udalak, dagozkion egiaztapenak egin eta gero, ofizios automatikoki berrituko du.

Titularrak bereizgarria berritu nahi ez badu, kudeaketa-organoari jakinarazi beharko dio denboraldi berria (udakoa edo urtekoa) hasi baino lehen, eta bereizgarria dagokion bulego eraman beharko du.

Bereizgarria ekartzen ez bada, titularra bidegabe erabiltzen ari dela ulertuko da, eta ordenantza honetako 16 d) artikulua araberako ondorioak izango ditu jokabide horrek.

15. artikulua. Betebeharrak

Bide publiko eta aparkalekuetan aparkatzeko, ordenantza honetako 2. artikuluan adierazitako arau orokor eta zehatz guztiak beteko dira, ibilgailuak aparkatzeko seinale guztiak errespetatutako dira, eta, gainera, ondorengo edozein agiri lortuko da:

- a) Oro har, dagokion tasa ordaindu ondoren, aparkatzeko txartel bat emango da, edo ez.
- b) Ibilgailuaren aurreko kristalaren barnealdean jarri beharko da txartela, kanpotik erraz irakurri ahal izateko moduan.
- c) Mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko bereizgarria (MM biñeta), ibilgailuaren aurreko haizetakoaren barrualdean itsatsi beharko dena, kanpotik erraz irakurtzeko lekuan.

16. artikulua. Zigor-araubidea

1. Norbaitek ordenantza honen edozein artikulua edo Alkatetzak ordenantzaren garapen gisa ematen dituen xedapenak urratzen baditu, hori trafiko eta zirkulazioko arau-haustetzat hartuko da, eta, ondorioz, zigorrak jarriko dira, legezko prozeduraren bidez.
2. Ibilgailuaren titularrak, hala eskatzen bazaio, arau-haustea egin duen gidari erantzulea zein den identifikatu behar du, eta dagokion prozedurazko tramitean obligazio hori justifikaziorik gabe betetzen ez badu, berari jarriko zaio 16.3.j) artikuluan jasotako arau-haustearen zigorra.
3. Arau-hausteak:
 - a) Aparkatzeko tiketean agertzen den gehienezko denbora pasatzea.
 - b) Ordenantza honetan adierazitako tiket edo txartelik gabe aparkatzea.
 - c) Errotazio handiko zonan berriz aparkatzea, aparkatzeko gehienezko denbora bukatu eta bi orduko epea pasatu gabe, Osakidetzako Osasun Zentroa inguratzen duen errotazio handiko zonan izan ezik. Zona horretan berriz aparkatzeko tartea 30 minutukoa izango da.
 - d) Tiket edo bereizgarri manipulatu, faltsu, baliogabetu edo desegokia erabiltzea.
 - e) Bereizgarrien titularrek ez betetzea helbide-aldaketa edo ibilgailuaren eskualdatzea jakinarazteko obligazioa.
 - f) Ordenantza honetan jasotako bereizgarria behar den moduan ez erabiltzea.

- g) Bereizgarria emateko beharrezko den betebarren bat ez betetzea, eta Udalari ez jakinaraztea (horretarako jarritako epean).
- h) Bereizgarria jaso zuen ibilgailuaren jabetza eskualdatu ondoren ere, haren bereizgarria erabiltzea.
- i) Ezintasunak dituzten pertsonentzako Europako Aparkaleku Txartelak edo, bestela, mugikortasun urriko pertsonentzako bereizgarria begi-bistan ez jartzea.
- j) Arau-haustea egin duen gidari erantzulea ez identifikatzea, aurrez eskatuta ere.
- k) Egoiliarrentzat gordetako gunean aparkatzea, zona **edo sektore** horretako bizilagunen bereizgarria eduki gabe.
- l) Okerreko tarifaren tiketarekin aparkatzea.
- m) Ordenantza honetan adierazitako beste edozein baldintza ez betetzea.

17. artikulua. Zigorak eta araubide-neurriak

Arau-haustea honakoekin bat etorri zigortuko dira: 339/1990 Legegintzako Errege-dekretua, martxoaren 2koa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzeko dena, V. tituluan (5/1997 Legeak, martxoaren 24koak, aldatutakoa); 19/2001 Legea, abenduaren 19koa, 18/2009 Legea, azaroaren 23koa, eta legezko gainerako xedapen osagarrietan eta udal ordenantzetan erabakitakoak.

16.3 artikuluko a), b), c), e), f), g), h), i) eta j) puntuetan tipifikatutako arau-haustea **120 euroekin** zigortuko dira (kopuru hori berrikusi egingo da, eta, beharrezkoa bada, Alkatetzaren Dekretu bidez eguneratuko da). 16.3 artikuluko d) kasua **400 euroekin** zigortuko da (kopuru hori berrikusi egingo da, eta, beharrezkoa bada, Alkatetzaren Dekretu bidez eguneratuko da) eta horretaz gain bereizgarria baliogabetu eta 2 urteko epea pasatu arte ez zaio berririk egingo. Horiek horrela izanda ere, ez da eragozpenik izango ondorengoak eskatzeko: ordenantzako tarifetan jarritako prezioak ordaintzea, baita premiamendu-bidea erabilita ere (Tasa eta Prezioei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legeko 27.6 artikularekin lotuta, abenduaren 28ko 39/1988 Legeak, Udal Ogasunak arautzekoak, 47.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri); eta sor daitezkeen beste tasak ere ordaintzea.

16.3 artikuluan tipifikatutako arau-haustea trafiko eta aparkamenduen zerbitzu publikoa antolatuta eta hobetzeko oztopo larriak dira, beraz, oker okupatutako espazioa berreskuratzeko, udal agintaritzak ibilgailu hori jasoko du, eta horretarako prestatutako gordailura eramango du, ezar daitezkeen zigor ekonomikoa kontuan hartu gabe.

16.3 artikuluko kasuetan autoa jaso egingo da, udal agintaritzak denbora mugarekin aparkatzeko egokitutako lekuetan horretarako baimena ematen duen bereizgarririk gabe aparkatzen bada edo, udal ordenantzan ezarritakoarekin bat etorri, ordaindutako denbora hirukoizten baldin bada.

Trafikoaren zaintzaz arduratzen diren agintaritzak-agenteei, legez jarritako kasuetan, ahalmena izango dute ondorengo kautelazko neurria hartzeko: ibilgailuak bidetik kentzea eta gordetzeko izendatutako lekura eramatea.

Ibilgailua bide publikotik jasotzeko zerbitzuak eta ibilgailua aurreko atalean aipatutako gordailuan egoteak IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK JASO ETA ERAMATEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAN xedatutako tasak sorraraziko dituzte. Ibilgailua itzuli aurretik tasa horiek guztiak ordaindu beharko dira.

~~Ibilgailuaren aparkaldiak ordaindutako denbora hogeita hamar minututik behera gainditu duenean, erabiltzaileak salaketa baliogabetu ahal izango du. Horretarako, bigarren gaitze-baimena eskuratuko du, ordaindu ondokoa, hogeita hamar minutuko aldi bakarrerako, eta hasieran baimendutako denborari gehituko zaio. Guztira eskuratutako denborak ezingo du gainditu dagokion zonarako ezarritako dagoen gehienezko aparkaldi-muga.~~

Ordaindutako denbora hogeita hamar minututik gora gainditu denean, salaketa baliogabetzeko tiketa lortu ahal izango da, baldin eta ibilgailua jaso baino lehen egiten bada ordainketa. Ordainketa aurreratua parkimetroan bertan egingo da. **Salaketaren ordainketa aurreratua egiteko epea bi ordukoa izango da, aparkamendu-tiketean adierazitako ordua bukatzen denetik kontaktzen hasita.** Ordainketa arautzen duen ordenantzan jarritako tarifa berezian adierazitako kopurua ordaindu beharko da.

Alkateak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak onar dezake trafikoaren arloan egiten diren arau-hauste ohikoenen taula bat, bai eta zigor aplikagarriena ere. Dena den, taula horiek modulatu ahalko dira sortzen diren zirkunstantzien arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan xedatu gabeko kasuetan honakoak beteko dira: ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA (2004ko otsailaren 25ean egindako Udaltzarrean behin

betiko onartua eta 2004ko martxoaren 5eko GAOn, 44 zenbakian, argitaratutakoa); eta aurreko ordenantzaren garapeneko araudia eta gainerako legeria aplikagarria.

Zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren, **Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak** salbuespenezko araubideak dituzten aparkaleku-bereizgarriak erabiliz aparkatzeko baldintzak aldatu ahal izango ditu, salbuespen moduan, egun jakin batzuetarako, trafikoarekin eta aparkalekuekin nahiz interes publikoko beste egoera batzuekin lotutako arrazioak direla-eta. Horrelakoetan, beharrezko diren bitartekoak erabiliko ditu, erabiltzaile guztiek erabakiaren berri izan dezaten, eta hala jakinaraziko zaie herritarrei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honek espresuki indargabetzen ditu honako hauek:

- Udalbatzarrak 2005eko abenduaren 28an egindako bilkuran behin betiko onetsitako ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA (GAOn argitaratua, 2006ko urtarrilaren 18an, 12 zk.).
- Udalbatzarrak 2007ko apirilaren 27an egindako bilkuran onartutako aldaketa (GAOn argitaratua, 2007ko ekainaren 25ean, 124 zk.).
- Udalbatzarrak 2010eko uztailaren 28an egindako bilkuran onartutako aldaketa (GAOn argitaratua, 2010eko urriaren 20an, 201 zk.).


Indargabetuta geratzen dira, baita ere, aurreko paragrafoan aipatutako ordenantzak indarrean egon diren bitartean Alkatetzaren Dekretu bitartez egin diren aldaketak.


AZKEN XEDAPENA

Behin betiko onespena jaso eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean ordenantza hau.

I. ERANSKINA

TAO ORDENANTZAK ARAUTUTAKO ZONAK





II. ERANSKINA

AIA, GETARIA eta ZUMAIako katastro-partzelen zerrenda, 11 b) artikulua ondo etarako

| PARTZELA ZK./Nº parcela | UDALERRIA/ Municipio |
|-------------------------|----------------------|
| 6492 | GETARIA |
| 6493 | ZUMAI/GETARIA |
| 6392 | ZUMAI |
| 6391 | ZUMAI |
| 6393 | ZUMAI |
| 6491 | AIA |
| 6591 | AIA |
| 6691 | AIA |
| 6490 | AIA |
| 6590 | AIA |
| 6690 | AIA |
| 6489 | AIA |
| 6589 | AIA |
| 6689 | AIA |
| 6488 | AIA |

| | |
|-----------------|-----|
| 6588 | AIA |
| 6688 | AIA |
| 6587 | AIA |
| 6992 | AIA |
| 6991 (854 ZONA) | AIA |
| 7091 (854 ZONA) | AIA |
| 6990 | AIA |
| 6989 | AIA |
| 6889 | AIA |
| 6789 | AIA |
| 6788 | AIA |
| 6888 | AIA |

10. 10. ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINAREN ALDAKETA: TAO. HASIERAKO ONESPENA

Espedientea: 2020C2100005

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=10>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, udal taldeen iritzi trukaketarako tartea zabaldu da. Eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

| | | |
|---------------|----|------------------------------------|
| Botoak alde: | 11 | 10 EAJ-PNV, 1 PSE-EE |
| Botoak aurka | 9 | 8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak |
| Abstentzioak: | - | |

Ondorioz eta adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Espedientean dagoen dokumentazioa ikusi ondoren eta Antolakuntzako informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea 10. ORDENANTZA FISKALA, TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA (TAO), aldatzeari, Eranskinaren idazkera berriaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezartzen duenaren arabera. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera

emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantza Fiskalen aldaketa behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Onartutako aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.”

ERANSKINA

Zerga-kuotak:

1.- Aparkatzeko bereizgarria edo baimena lortu eta, kasu bakoitzean, dagokion baldintzetan aparkatu ahal izateko, Zarauzko Udalerriko Bide Publiko Jakinetan Ibilgailuen Aparkamendua arautzeko Ordenantzan ezarritakoaren arabera, honako zerga-kuotak ezarri dira urte edo frakzio bakoitzeko:

- Egoiliarren txartela/bereizgarria, (etxebizitza bakoitzeko): TAO ordenantzako 7 art:

| | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| Txartel edo bereizgarri bakoitzeko | 30,00€ 35 € 45,00€ |
|------------------------------------|----------------------------------|

- Egoiliarren aparteko txartela/bereizgarria, (etxebizitza bakoitzeko): TAO ordenantzako 8 art:

| | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| Txartel edo bereizgarri bakoitzeko | 30,00€ 45 € 65,00€ |
|------------------------------------|----------------------------------|

- Jarduera ekonomikoekin lotuta dauden ibilgailuen txartela/bereizgarria, (enpresa bakoitzeko): TAO ordenantzako 9 a) eta b) art:

| | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| Txartel edo bereizgarri bakoitzeko | 30,00€ 35 € 45,00€ |
|------------------------------------|----------------------------------|

- Jarduera ekonomikoekin lotuta dauden ibilgailuen txartela/bereizgarria (TAO ordenantzako 9.c art.):

| | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| Txartel edo bereizgarri bakoitzeko | 45,00€ 50 € 65,00€ |
|------------------------------------|----------------------------------|

- TAO ordenantzako 10. artikuluan araututako txartela/bereizgarria:

| | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| Txartel edo bereizgarri bakoitzeko | 45,00€ 50 € 65,00€ |
|------------------------------------|----------------------------------|

- Egoiliar ez diren langile eta autonomoen ibilgailuen txartela/bereizgarria (TAO ordenantzako 10 b. art.):

| | |
|-------------------------------------|------------------------------------|
| — Txartel edo bereizgarri hilerokoa | — 25,00€ 30 € 30,00€ |
|-------------------------------------|------------------------------------|

- Arautu gabeko zonetako egoiliarren txartela/bereizgarria, (TAO ordenantzako 11.a art.):

| | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| Txartel edo bereizgarri bakoitzeko | 10,00€ 20 € 45,00€ |
|------------------------------------|----------------------------------|

- Alboko udalerrietako auzo jakinetako egoiliarren ibilgailuen txartela/bereizgarria (TAO ordenantzako 11.b art.):

| | |
|---------------------------|------------------------------------|
| Txartela edo bereizgarria | — 30,00€ 35 € 45,00€ |
|---------------------------|------------------------------------|

- Ibilgailuen titular diren eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela/bereizgarria: ~~0,00€~~ 10,00 €

- 2021eko egoiliar-txartelaren titularrek, 2021erako kobrantza helbideratuta badute edo helbideratzen badute, % 5eko hobarria izango dute.

2.- Aparkatzeko baimena, epe jakin baterako, honako tarifa-zona hauetan:

2.1.- Errotazio handiko zonetan aparkatzea, erabiltzaile guztientzat:

| Denbora | Errotazioa handia |
|--|-------------------|
| 15 min. | 0,00 |
| 30 min. | 0,50 |
| 60 min. | 1,30 |
| 90 min. | 2,50 |
| SALAKETA DEUSEZTATU (Denbora-gaindituta) | 20,00 |
| SALAKETA DEUSEZTATU (tiketa jarri ez delako) | 25,00 |

Araututako gainontzeko zonetan aparkatzea, zirkulazio-baimenaren helbidea Zarautzen duten ibilgailuentzat:

| Denbora | 1-6 Zona | 3-5 Zona | 2-4 Zona | Ibilgailu industrialak |
|--|----------|----------|----------|------------------------|
| 0-15 min. | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 30 min. | 0,40 | 0,35 | 0,25 | 0,25 |
| 60 min. | 0,85 | 0,75 | 0,50 | 0,50 |
| 90 min. | 1,25 | 1,15 | 1,00 | 1,00 |
| 120 min. | 2,15 | 1,75 | 1,50 | 1,50 |
| 150 min. | 2,70 | 2,20 | 2,00 | 2,00 |
| 180 min. | 3,25 | 2,60 | 2,40 | 2,40 |
| 210 min. | 4,85 | 3,80 | 2,70 | 2,70 |
| 240 min. | 5,50 | 4,75 | 3,00 | 3,00 |
| Egun osoa | 11,0 | 7,50 | 6,00 | 6,00 |
| SALAKETA DEUSEZTATU (Denbora-gaindituta) | 20,00 | 20,00 | 20,00 | 20,00 |
| SALAKETA DEUSEZTATU (tiketa-jarri ez delako) | 25,00 | 25,00 | 25,00 | 25,00 |

*Minusbaliatuen Europako Txartela duten ibilgailuek % 20-ko deskontua izango dute.

(*) Salberdineko aparkalekua, egun osoa: 7,50 €

2.2.- Araudi normala (Zirkulazio-baimenaren helbidea Zarautzen duten ibilgailuak)

| | |
|---------------|---------|
| 0-30 min | 0,00 € |
| 60 min | 0,90 € |
| 90 min | 1,25€ |
| 120 min | 2,15 € |
| 180 min | 3,25 € |
| 240 min | 5,50 € |
| 300 min | 6,25 € |
| 360 min | 7,05 € |
| 420 min | 7,85 € |
| 480 min | 8,60 € |
| 540 min | 9,40 € |
| 600 min | 10,20 € |
| 660 min (max) | 11,00 € |

Araututako zonetan aparkatzea, gainerako erabiltzaileentzat:

| Denbora | 1-6 Zona | 3-5 Zona | 2-4 Zona | Ibilgailu industrialak |
|--|----------|----------|----------|------------------------|
| 30 min. | 0,45 | 0,40 | 0,30 | 0,30 |
| 60 min. | 0,90 | 0,80 | 0,60 | 0,60 |
| 90 min. | 1,35 | 1,20 | 1,10 | 1,10 |
| 120 min. | 2,40 | 2,20 | 1,60 | 1,60 |
| 150 min. | 3,00 | 2,70 | 2,00 | 2,00 |
| 180 min. | 3,60 | 3,00 | 2,50 | 2,50 |
| 210 min. | 5,25 | 3,85 | 2,70 | 2,70 |
| 240 min. | 6,00 | 4,75 | 3,00 | 3,00 |
| Egun osoa | 12,00 | 7,50 | 6,5 | 6,5 |
| SALAKETA DEUSEZTATU (Denbora gaituta) | 20,00 | 20,00 | 20,00 | 20,00 |
| SALAKETA DEUSEZTATU (tiketa jarri ez delako) | 25,00 | 25,00 | 25,00 | 25,00 |

*Minusbaliatuen Europako Txartela duten ibilgailuek % 20-ko deskontua izango dute.

(*) Salberdineko aparkalekua, egun osoa: 7,50 €

2.3.- Araudi normala (Zirkulazio-baimenaren helbidea Zarautzen ez duten ibilgailuak)

| Denbora | Gainerako urte-sasoia | Udako denboraldia |
|---------------|-----------------------|-------------------|
| 0-15 min | 0,00 € | 0,00 € |
| 30 min | 0,45 € | 0,75 € |
| 60 min | 0,90 € | 1,50 € |
| 120 min | 2,40 € | 4,00 € |
| 180 min | 3,60 € | 6,00 € |
| 240 min | 6,00 € | 10,00 € |
| 300 min | 6,85 € | 11,40 € |
| 360 min | 7,70 € | 12,85 € |
| 420 min | 8,55 € | 14,25 € |
| 480 min | 9,40 € | 15,70 € |
| 540 min | 10,25 € | 17,10 € |
| 600 min | 11,10 € | 18,55 € |
| 660 min (max) | 12,00 € | 20,00 € |

2.4.- Ibilgailu industrialak (Araudi normala)

| | |
|---------------|--------|
| 0-15 min | 0,00 € |
| 30 min | 0,35 € |
| 60 min | 0,70 € |
| 120 min | 1,90 € |
| 180 min | 2,85 € |
| 240 min | 4,80 € |
| 300 min | 5,45 € |
| 360 min | 6,15 € |
| 420 min | 6,85 € |
| 480 min | 7,50 € |
| 540 min | 8,20 € |
| 600 min (max) | 8,90 € |
| 660 min (max) | 9,60 € |

2.5.- Autokarabanak

| Udako denboraldia | Gainerako urte-sasoia |
|-------------------|-----------------------|
| 10,00 € | 5,00 € |

2.6.- Sasoiko edo aldi baterako aparkalekuak

| | Gainerako urte-sasoia | Udako denboraldia (edo aldi baterako) |
|-----------|-----------------------|---------------------------------------|
| 240 min | 2,50 € | 5,00 € |
| Egun osoa | 5,00 € | 10,00 € |

Udaldirako zona berezietan aparkatzea:

| | Zona bereziak |
|--|---------------|
| 240 minutu | 2,50 |
| Egun osoa | 5,00 |
| SALAKETA DEUSEZTATU (Denbora gaindituta) | 20,00 |
| SALAKETA DEUSEZTATU (tiketa jarri ez delako) | 25,00 |

2.7.- Tiket bereziak

| | |
|---|---------------------|
| 20 tiketeko taloitegia, aldi baterako ostaturik emateko establezimenduentzat (egun osoan aparkatzeko) | 80,00 € 100,00 € |
| 10 tiketeko taloitegia, etxebizitza bakoitzeko (egun osoan aparkatzeko)(*) | 60,00 € |
| 20 tiketeko taloitegia, etxebizitza bakoitzeko (4 ordutan aparkatzeko)(*) | 60,00 € |
| 1 ordu aparkatzeko tiketa, dendetako bezeroentzat | 0,40 € |
| 2 ordu aparkatzeko tiketa, dendetako bezeroentzat | 1,00 € |

(*) Gehienez taloitegi bat etxebizitza bakoitzeko; bi aukeretako bat hautatu beharko da.

Eranskinaren 2 punturako aplikagarriak diren arauak:

1.- Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko Europako Txartela duten ibilgailuek % 20-ko deskontua izango dute

2.- Salaketa baliogabetzea (lehenengo bi ordutan):

- Aparkatzeko denbora gainditzeagatik: 10,00 €
- Ticket edo bereizgarririk gabe aparkatzeagatik: 30,00 €
- Egoiliarrentzat gordetako eremuan aparkatzea: 30,00 €
- Bestelakoak: 30,00 €

3.- 7 zonan aparkatzeko baimena : 3,00 €/eguneko

3.- Txartel berria ateratzea, ibilgailua edo etxebizitza aldatzeagatik edo beste arrazoiren batengatik: 5,00 €

5.- Txanpon txartela ateratzea: 5,00 €.

11.- ZARAUZKO UDALERRIKO KALEAK ETA ANTZEKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOAREN KLAUSULA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA

2021IK200001 espedientea

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=11>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du **idazkari andreak**. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

| | | |
|---------------|----|------------------------------------|
| Botoak alde: | 11 | 10 EAJ-PNV, 1 PSE-EE |
| Botoak aurka | 9 | 8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak |
| Abstentzioak: | - | |

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“Kontratuaren gaia da ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUAK adjudikatzea, Administrazio-klausulen Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak xedatutakoaren arabera.

Kontratuak hamar (10) urteko iraupena izango du, zerbitzua ematen hasteko akta egiten den egunetik zenbatzen hasita. Akta hori, gehienez ere, kontratua sinatu eta hurrengo hilabetean egin beharko da.

Ikusita kontratazio horretarako Administrazio-klausulen Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak eta Lurraldeko informazio-batzordeak emandako irizpena, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUAK kontratatzeko Administrazio-klausulen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria onartzea.

Bigarrena.- Deialdia egitea, kontratu hori prozedura ireki bidez adjudikatzeko, urteko gehienezko prezio honetan: 1.486.990,40 euro BEZ barne (1.351.809,45 euro + 135.180,95 euro BEZ).

Hirugarrena.- Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo udal aurrekontuan, partida honetan: 0404.227.01.163.00 2021 (4123).

Halaber, zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUEN kontratua adjudikatzeko erabakia, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena.- Kontratazio-espeditentean nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.”

12.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

- ETA gaitzesteari buruzkoa

Espedientea: 2021O0010001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=12>

Aztergai honetara iritsita, PSE-EE udal taldeak atzera egin eta aurkeztutako proposamena erretiratzen du gai-zerrendatik. Arrazoia da eskaera egin zaiela puntu hau alde zurretik eztabaidatzea, Giza Eskubideak eta Bizikidetzaren gaia aztertzen den Komisionan.

13.- EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA.

- Euskal Poliziari begirunea eta babesari buruzkoa.

Espedientea: 2021O0010002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210128&punto=13>

Ondoren, EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du **Arana** jaunak. Hona hemen testua:

EUSKAL POLIZIARI BEGIRUNEA ETA BABESA ZIOA

Osasun alarma egoera dela eta, gure gizartea ezohiko egoera bat bizitzen ari da. Egoera honetan, norberak eta gizarte osoak ere, gure esku dagoen guztia jartzen jarraitu beharko dugu birusaren komunitate transmisioa eragozteko. Jarrera hau norberaren onerako izango da eta, baita ere, elkartasuna erakutsiz, gizarte osoaren onerako ere.

Egoera zail hau bizitzako arlo guztietan sufritzen ari gara eta kezka handiz ikusten dugu gizartearen elkarbizitzan duen eragina. Aurrekaririk gabeko errealitate larri honek era guztietako arazoak biderkatu ditu, arazo ekonomikoak eta sozialak, baita emozionalak ere.

Egoera horri aurre egiteko, osasun agintariak neurriak proposatzen dituzte eta, oinarri hori hartuta, erakundeek erabakiak hartzen ditugu. Neurri guzti horien helburua da osasun publikoa bermatzea eta pertsonen bizitza zaintzea. Beti ere oreka mantenduz eta gizarte bizitza, ahal den neurrian, babestuz.

Hartutako neurriak beharrezkoak dira eta eraginkorrak izaten ari dira.

Hau guztia kontutan izanda, oso kezagarria da asteburu honetan hainbat udalerrietan izan diren liskarrak eta arazoak. Zoritxarrez, bizikidetzaren aurka doazen ekintza arduragabeak direla esan behar dugu. Eraso hauek antolatua izan direla nabarmendu dute gure agintariak.

Inoiz zentzurik ez duten probokazio eta eraso bortitzen aurrean, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak profesionaltasuna erakutsi dute, orekaz eta neurritz jardun dira. Beraien jardunaren helburua osasun publikoa eta gizarte bizitza defendatzea izan da.

MOZIOA

- 1.- Zarauzko Udalak, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren jarduera eskertzen, aitortzen eta babesten du.
- 2.- Zarauzko Udalak, gizarte osoa pairatzen ari den une zail hauetan beharrezko bizikidetzaz zalantzan jartzen dituzten mobilizazio horien guztien erabateko gaitzespena adierazten du.
- 3.- Mozio honen berri, Ertzaintzari (Barne Saila), Udaltzaingoiari eta komunikabideei berri ematea.

Gaia eztabaidatu ondoren, proposamena bozketan jarri dute, eta emaitza hau izan du:

| | | |
|---------------|----|------------------------------------|
| Botoak alde: | 11 | 10 EAJ-PNV, 1 PSE-EE |
| Botoak aurka | - | |
| Abstentzioak: | 9 | 8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak |

Ondorioz, botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EAJ/PNV udal taldeak aurkeztu duen mozioa onartzea.

14.- ESKARI-GALDERAK

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200128&punto=14>

EH-Bilduko **Jon Arozena** zinegotziak galdetu du zarautz.eus web-orria Udalarena den ala Gobernuan dagoen udal taldearena. **Alkate jaunak** erantzun dio prentsa arduradunarekin landu beharreko gaia dela, aktan jasota gelditzen dela eta hurrengo bilkuran erantzungo zaiola.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko bederatzia eta hamabostean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.